

**OLASO
DORREA**
FUNDAZIOA

2022eko

EKIMENAREN MEMORIA

2022ko jardun memoria

1. Olaso Dorrea etxearen mantenua

Olaso Dorreak bost mende baino gehiago dituen eraikina izatek mantenu eta berriztapen lanetan esfortzu eta inbertsio garrantzitsuak eskatzen ditu. Beste lan batzuen artean, mantenu hori egiteko Fundazioak pertsona bat du kontratupean. Hona hemen ohiko garbiketak eta mantenuzko lanez gain 2022an egindakoen laburpena.

1.1 Lorategia

Olaso Dorrearen kanpoaldean dagoen lorategiko mantenu lanekin jarraitu dugu. Bergarako Udalarekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz, lorategi honek erabilera publikoa du egunean zehar. Mantenu lan handiak Udaleko lorezaintza zerbitzuak egiten dituen arren, egunerokoan egin beharreko mantenu eta garbiketa Olaso Dorrea Fundazioak kontratupean duen langileak egiten du, hala nola hostoak kendu eta harri txintxarrak txukundu (astean bi aldiz), ureztatu, inausketa txikiak egin, huntzak atondu...





1.2 Teilatua

Urtean behin izaten den lez, aurten ere mantenuko lanak bete dira. Teilatutako hodiak garbitu, belarrak eta goroldioa kendu, teilak eta pesebreak aztertu etab.

1.3 Kanpo eta barruko garbiketa lana orokorrak

Jardina, teilatua, atariak, barruko gelak eta saloiak, panteoia etab.



Hona hemen panteoia.

1.4 Ezarritako protokoloari jarraituz urteroko ikuskapenen fitxak

2012. urtean amaitu zen eraikinaren zaharberritzearen ondorioetako bat eraikinaren mantenu sistematikoaren beharra izan zen. Izan ere mota honetako eraikin askok (publiko zein pribatuak) eraikinaren zati/leku garrantzitsuetan mantenu falta izaten dute, eta gabezia horren ondorioz iraganean jasandako kalteak errepikatu egiten dira. Garrantzitsua da teilatuko teilak egoera onean eta ondo kokatuta egotea, euri urak bideratzen dituzten kanaloak eta hobiak osorik eta garbi egotea, instalakuntza elektrikoa zein estolderia instalakuntza egoera onean mantentzea etab. Gai hauen garrantziaz jabetuta, Olaso Dorrean protokolo bat ezarri dugu, eta ondorioz urtero berrikusten dira .

Ikuskapen bakoitzeko fitxa bat jaso eta mantenu liburu batean gordetzen da.

2 . Fundazioaren ekintzak

2.1 SASETAREN HERITIZAREN 80 URTEURRENA ETA MONZONEN “GUDARIEN EGINAK” POEMA LIBURUAREN 75 URTEURRENA OROITZEKO EKITALDIA

Aurten Kandido Sasetaren heriotzaren 80 urteurrena eta Monzonen “Gudarien Eginak” poema liburuaren 75 urteurrena ospatzeko, Olaso Dorreak, Kepa Ordoki Memoria Historikoa elkartearekin batera, bi ekitaldi antolatu ditu Hondarribia eta Bergaran. Ekitaldi hauek Irati Jimenez idazleak zuzendu ditu eta bere aurkezpena Gudarien Eginak poema liburuko olerkiekin osatu du. Irailaren 4ean aurkeztu zen egitasmoa Olaso Dorrea Fundazioan eta Irailaren 17an Hondarribian eta Irailaren 27an Bergaran egin ziren ekitaldiak. Irati Jimenezek zuzendutako ekitaldiak hainbat kantari, idazle, dantzari eta abesbatzarekin osatu zen.



Irailak 17, 11:30etan
Itsas Etxea auditoriumean, Hondarribia

POESIA
 ETA KANTU **IKUSKIZUNA**

**Saseta, Monzon
 eta Gudarien Eginak**



Olerkiak:
 Irati Jimenez
 Mikel Albisu
 Oihana Arana
 Edorta Jimenez

Kantua:
 Garazi Barrena

Irailak 27
 19.00etan
 Seminarixuan
BERGARA

SARRERA LIBRE
AFOROA BETE ARTE





2.2 MONZON-GANUZA SARIA EUSKAL UTOPIKOEI SARIA



Bergarako udalarekin sinaturiko hitzarmenaren baitan, Monzon Ganuza Saria jarri zen martxan 2021 urtean. Euskal Herriaren alde oso eremu desberdinetatik beraien bizi osoan zehar lan egin duten herritarrak omentzea du helburu sariak.

Monzon-Ganuzaren sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omendu nahi dira.

Saria erabakitzeke unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroak euskal historian izan duen garrantzia, edo eta batasunaren balioa.

Era berean, euskal kulturgileak sustatzeko saria ere bada:

Saria sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzon zein Josefa Ganuzaren balioak ordezkatzeko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da. Urtero artista berri bati eskainiko zaio eta horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako eta euskal kulturgintza hauspotzeko ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraiki nahi dugu.

Oinarriak:

1. Monzon-Ganuzaren sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omenduko dira.
2. Saria erabakitzeko unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroaren garrantzia euskal historian edo eta batasunaren balioa.
2. Saria urtero banatuko da, Telesforo Monzonen heriotzaren datan (Martxoak 9) edo inguruan. Sari duna nor den beranduenera bi aste lehenago emango da jakitera.
3. Saria erabakitzeko BATZORDE bat izendatuko da, Olaso Dorrea Fundazioko Patronatuak izendatutako hiru pertsona eta Bergarako Udalak izendatutako bi pertsonen osatua.
4. Batzordea lau urtean behin berrituko da. Batzordekideek errepika dezakete mandatua.
5. Batzordeak, urtero, urte horretako urtarrilaren 31erako erabakia izango du saria nori eman, batzordeko edozein kideek aurkezturiko izenen artean. Erabakitzeko unean lehen artikuluan aipatutako irizpideak izango dira kontuan.
6. Saria sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren balioak ordezkatzeko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da.
7. Urtero artista berri bati eskainiko zaio saria diseinatzeke aukera, horrela saria bere euskal artista berrien sustapenerako ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraikiaz.
8. Batzordea izango da artista eta honen obra aukeratzeko duena.
9. Euskal artista berriak bere obraren berri batzordeko kideei emateko Olaso Dorrea Fundaziora zuzendu beharko dira, saria eman aurreko urteko abenduaren 31a baino lehen.
10. Obra artistikoa ordaindua izango da, orotara, 3.500 euroko diru kopuruarekin.
11. Sari ematea Bergarako herrian burutuko da.

Egun Fundazio/Udal batzordea honakook osatzen dute:

Begarako alkatea, Bergarako kultur zinegotzia, ODFko Lehendakaria Iratxe Esnaola eta Patronatuko kide Irati Jimenez eta Maite Aristegi.

Horretaz gain Saria den obra artistikoa aukeratzeko batzorde bat osatu da, ondorengo adituekin:

- Karlos Galarraga (Bergarako Beart arte elkarteko kidea)
- Jesus Mari Lazkano (margolaria)
- Mikel Lertxundi (arte historialaria eta komisarioa)

2022 SARIA:

Jose Luis Elkoro (Elgeta 1935) eta Mari Karmen Ayastuy (Bergara 1943)

Jose Luis Elkoro Unamunok (Elgeta, 1935) eta Mari Karmen Ayastuy Agirrek (Bergara, 1943) Euskal Herriaren alde bizitza betea eman dute. Euskara min eta lehentasun, gure iraganarentzat etorkizun bat eraikitzeko lanean aritu dira beti. Baldintza latzetan batzuetan, egoera zailetan gehienetan, frankismoan bezala ondoren ere. Eta hor egon dira biak: aberriaren alde hartu zuten konpromisoari leial. Elkarrekin amesten, ametsari elkarrekin bultzatzen.

Bergarako ikastolaren sorreran parte hartu zuten, arriskuak onartuz, seme-alabentzat klandestinitatean egiten zen irakaskuntzaren alde eginez. Gero herrigintzaren deia etorri zen Jose Luisentzat, lehenik, AlkartuNai proiektuaren bultzatzaile eta kide; eta, gero, herriko alkate bezala. Herrigintzan buru-belarri jardun zuen, ekintza askotan parte hartuz, herriarentzat zerua eskatzea bezain garrantzitsua lur bat ziurtatzea dela sinetsita.

Mari Karmen eta Jose Luisek euskara bihotzean eta ahoan izan dute beti. Eta lehen mailako hizkuntza gisa tratatzen zuten. Jose Luisek badaki zer den udaletxean inork euskaraz ez jakitea, idazkari guztiak Espainiatik nola bidaltzen zituzten ikustea, edota zein oztopo zituzten aktak euskaratu ahal izateko. Eta euskara lehen lerroan jarri dute biek, Elay familia enpresan ere: aitzindariak izan dira euskararen sustapena ardatz gisa hartzen. Elay martxan jarri zutenetik, oso garbi izan zuten euskarak bere tokia behar zuela, lana euskaraz egitea posible zela. Eta egin behar zutela. Eta bidea zabaldu zuten, eta gaur, Elayn euskaraz modu naturalean egiten da lan. Are, makina eta teknologiak eskuratzeko, programazioa eta argibideak euskaraz izatea baldintza gisa ezarrita, gure hizkuntzak, ingelesa, alemana edo txineraren pare, noranahikoa dela frogatu dute

Jose Luis Elkoro Alkateen Mugimenduan nabarmendu zen 1976an, Euskal Herriak bere izenean hitz egiteko instituzio eta botere legitimoak ez zituenean. Euskal Herriaren askatasunaren alde lehen lerroan mobilizatu ziren udalak, artean alderdi politikoak ilegalizatuak zeudenean. Bozeramale eta ordezkari ez ezik, herri hau gobernatu ere egin zuten. Madrilen zuzenean ikurriñaren legalizazioa, euskararen aitortzea, autonomia estatutu nazionala, eta beste hainbat kontu kudeatuz. Herri honen geroa markatu duten eztabaiden pil-

pilean egon ziren alkate haiek, eta hor nabarmendu zen, beste askorekin, Jose Luis.

Telesforo Monzon eta Jose Luis lagun minak ziren. Telesfororekin aritu zen Jose Luis Txibertan, eskuz-esku, abertzaleen batasunaz bakeari eta askatasunari aukera bat sortzeko. Ez zen posible izan, baina hauts haietatik altxatu ziren, batasunaren, bakearen eta burujabetzaren alde. Herri Batasunaren sorreran egon ziren Telesforo eta Jose Luis, Mahai Nazionalean biak, politikatik eraginez. Txibertan egin bezala, bakearen ildoan jorratzen lan asko egin du Jose Luisek, Madrilen, Ameriketara edo Suitzara, hitzari aukera bat emateko, eta negoziatioari, bide bat.

Herri Batasunakoa izateagatik sartu zuten preso Jose Luis. Gero, "Egin" egunkariaren enpresa editorearen administrazio kontseiluko lehendakari izateagatik. Jose Luis eta Mari Karmen euskal prentsaren eta prentsa askatasunaren sustatzaile handiak izan dira. Egoera gogorak bizi beharra tokatu zaie. Baina aurrera egin dute beti. Eta euren barneko konpromisoari tinko eutsi diote: batasunetik Euskal Herriaren aldeko lanari.

Jose Luisen jardunaz luze mintza gaitezke, luzea eta oparoa izan baita espazio publikoan egin duen ibilbidea. Eta Mari Karmenek, ibilbide horri bide eman zion, ondoan eta albotik babestu zuen, askotan kide gisa lanean aritu zen eta, noski, espazio pribatua deitzen zaionaren ardura ia osoa eraman zuen. Eta espazio pribatu hori eta hor egiten den lana ere balioan jarri behar da, prestigiatu, hori gabe ezin delako bizitza sostengatu.

Mari Karmenek harreman estua izan zuen Maria Josefa Ganuza-rekin. Bizipen asko zituzten komunean. Horrek batu zituen, eta hitz, asmo, gogo eta nahigabeak partekatu zituzten. Maria Josefak lagun eta sustengu izan zuen Mari Karmen. Horrez gain, arestian aipatu bezala, Bergarako ikastolaren sorreran parte hartu zuen Mari Karmenek, Jose Luisekin batera. Herri honetan espetxea eta erbestea pairatu behar izan dutenen eta hauen senideen etengabeko sostengu horietako bat izan da Mari Karmen. Xamur, apal, behar denerako beti prest. Beti hor.

Eta hori guztia gutxi balitz, Olaso Dorrea Fundazioko patronatu kide izan dira biak, 2018ra arte, Jose Luis fundazioaren lehendakari zelarik.

Jose Luis eta Mari Karmen, Mari Karmen eta Jose Luis, biek eutsi diote erronkari, Euskal

Herriarekin konpromisoa bizitza osoko lan eginda, maite duten herriari beren onena emanda. Aurten Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei Sariarekin ekarpen handi hori aitortzen dugu. Utzi diguten eredia jarraibide ederra dugu. Hala bedi.

SARI EMAILEA:

2022ko sariaren egilea

– Laida Lertxundi

Laida Lertxundi artista eta irakaslea da. Bere praktika artistikoa New Yorken eta Los Angelesen gartu ondoren, Euskal Herrian bizi eta lan egiten du egun. Zorroztasun kontzeptuala plazer sentsualarekin konbinatuz, Lertxundiren lanak arte kontzeptualaren eta zinema estrukturalaren ideiak eta gorputzetik lan egiteko ikuspegi feminista erradikala batzen dituzten lekuen miaketa erakargarri eta autoflexiboak dira.



2.2. Bisita Gidatuak

Olaso Dorrea Fundazioaren asmoa da bere ondarea ezagutzera ematea, dorretxea Bergararrei eta bisitariei irekiaz, eta horrela, Telesforo Monzonen nahiari erantzunaz. Bergarako Udalak turismoa eta kultura herrian bultzatzeko duen asmoarekin bat egiten duen egitasmoa da hau, herri honek duen ondarea ahal den heinean erakusgai jarriaz eta bisitatzeko aukera eskainiz.

Horri jarraikiz, Laboratorium museoa ikusteko aukerarekin batera Olaso Dorretxean bisita gidatua ere egiteko aukera ireki zen 2021 urtean.

Bisitari begira zenbait atontze egin behar izan dira etxean, bai segurtasun aldetik bai eta irisgarritasun aldetik ere. Asegurua ere egokitu egin da, bai eta zaintza. Dorrea irekitzeak harrera ezin hobea izan du.

Hilean hiru bisita antolatzen dira (2 euskaraz eta 1 gazteleraz), 2021eko Martxoaren 13tik aurrera. Iraupena ordu t´erdi ingurukoa da eta taldeak gehienez 12 pertsonakoak dira (nahiz eta COVID19 dela eta murriztu egin diren).

2021 urtean 281 bisitari pasatu ziren, 174 emakume eta 107 gizonezko.

2022 urtean 38 bisita gidatu egin dira eta 310 bisitari pasatu, horietatik 186 emakume eta 124 gizon.



OLASO DORREA BISITA GIDATUAK


OLASO DORREA FUNDAZIOA

 Bergarako Udala



2.3. Hitzaldi/aukezpenak:

LIBURU AURKEZPENA



Agirre Lehendakaria Hitler eta Francoren gaitzespenak
 "A LA CAZA DEL PRIMER LEHENDAKARI"

SOLASALDIA


Ingo Niebel (Egilea)
 (GAZTELERAZ)



Ekainak 1, 18:30ean
 Bergarako OLASO DORREAN



LIBURU AURKEZPENA



**"IKUSEZINAK,
 HERBESTERATUEN HAURRAK"**

SOLASALDIA

**Miren Azkarate eta
 Joseba Sarrionandia**



Abenduak 19, 19:00etan
 Bergarako OLASO DORREAN

**Egunkaria,
 gizarte zibilaren arrakasta**
SOLASALDI ZIKLOA

• Martxoaren 21an,
 19:00etan,
 Bergarako
 Olaso Dorrean

Joanin Mari Larrartek egingo du liburuaren aurkezpena,
 eta Egunkaria batzordeetako kideak izango ditu solaskide.

Liburuaren eskuragarri BERRIA denda:
Berria.eus/berrialaguna/genda • 943-30 43 45

Jakin elkar berria



ABENDUAREN 2a ★
TELESFORD

INDEPENDENTZIA
 SOZIALISMOA
 FEMINISMOA

HITZALDIA:
 Nor zen Telesforo Monzon?
 (Olaso Dorrearen fundazioa)

**18:00etan
 OLASO DORREAN**

"Nun zaizte gazteak? Zuegan ezarri dugu esperantza. Izarrak iritsi nahiz, zerurantz luzatzen ikusi nahi zuten besoak."

ERNAI Alderdi 1960 OLASO DORREA

2. 4 AMAIUR MEMORIA HISTORIKOA, ERAKUSKETA LABORATORIUMEN .

**1922
1936** | **MEMORIA DEMOKRATIKOA
LA MEMORIA DEMOCRÁTICA**

AMAIUR

Erakusketa/Exposición
Laboratorium Museoa. Bergara.
2022.06.20 - 2022.09.11

ANTZARAKETA - ORGANIZAZIOAK
LABORATORIUM | | | |

IKERKETAZ - LAGUNTZA
 | | |

LAGUNTZAILEAK - COLABORADORES
 | | |



2.5 GIZABIDEAREN jardunaldiak

Olaso Dorrea Fundazioa eta Gizabidea Fundazioaren arteko hitzarmenari eutsiz, areto nagusian zenbait bilera egin dira urtean zehar.




2.7. JAKIUNDEn jarduna

JAKIUNDE Akademiarekin sinatutako hitzarmenari jarraikiz, urtero lez, Bergaran 2019ko azaroaren 8an plenarioa egin zuten JAKIUNDEkoek. Fundaziotik zerbitzua eskaini zitzaien eta bileraren antolaketak eskatzen zituen gastuei aurre egin zaie. Horretaz gain, JAKIUNDEren egoitza urte osoan zehar mantenu eta zaindu du Olaso Dorrea Fundazioak, bulegoen eta azpiegituraren mantenua barne sartzen delarik, baita igogailua, telefonoa zein argindarraren ordainketa.

2.8 Argazki fondoaren osaketa eta digitalizazioa

Ia zazpi milako argazki fondoari dagokionez, jarraitzen da data basean argazkien informazioa sartzeko. Horretarako, lehenik eta behin argazkian bertan begiratzen dugu, ea idatzizko daturen bat agertzen den. Oso gutxitan agertzen da hau, beraz, interneten begiratuta, Olaso Dorrean diren zenbait argitalpenetik (Enbata, Punto y Hora, etab.) eta Monzon familiarekin lotura izan zuten hainbat lagunekin alderatuz egiten ari gara lan hau.



Zailtasunak zailtasun, sortzen ari garen data basea osatua da eta etorkizunean kontsulta publikorako tresna baliotsua izango da.

2.9 Artxiboen kudeaketa

Artxibora kontsultak egitera etorri diren ikerlariei arreta eman. Olaso Dorrean kokatuta dagoen artxibategi historikoan kontsulta egiteko eskaerak gero eta maizago ematen dira, eta dedikazio garrantzitsua eskatzen dute. Izan ere, artxibategian bertan ezin dute bisitek “eskua sartu”. Artxibategiko dokumentuen zerrenda eskaintzen zaio bisitariari eta honek interesatzen zaizkion dokumentuak identifikatuta, Olaso Dorreko langileak artxibategitik atera eta kontsultarako uzten dizkio. Horretarako, eta era duinean lan egin ahal izan dezan, ikerlariari bulego bat eskaintzen zaio. Era honetan artxibategiko dokumentazio guztia kontrolpean dagoela eta modu egokian zaintzen dela ziurtatu dezakegu.

Bisita fisikoez gain, ugari izan dira Olaso Dorrea Fundazioaren jabegopean baina Euskaltzaindiak gordailuan duen Lacombe fondoaren bildumako lanen kontsulta eskatzen dute ikertzaileak. Kontsulta eskaera guzti hauek Euskaltzaindiako langile batek jasotzen ditu eta Olaso Dorrea Fundazioari baimen eskaera luzatzen dio. Normalean ez da arazorik izaten eta baimenak

onesten ditu Fundazioko Lehendakariak. Erabiltzaile nagusiak Euskal Herriko ikertzaileak dira, bereiziki historialari eta filologoak, horietako batzuk euskaltzainak eta hainbat unibertsitateko irakasleak (Euskal Herriko

Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Deustuko Unibertsitatea). Bada bestelakorik ere adibidez, euskal idazleak.



Artxibora kontsultak egitera etortzen direnei, eskaintzen zaien bulegoa.

2.10 Liburutegiak

Bi dira Fundazioak dituen Liburutegiak. Gaur egun Euskaltzaindiak gordailuan duena, **1.930 liburu**ekin osatzen dena: Fondo G. Laconbe liburutegia Eta Monzon-Ganuzza liburutegia azken hau **2.215 liburu**ekin osatuta. Azken liburutegi hau XVI mendetik XX mendearen hasiera arte inbentariatuta egon arren, XX mendeko azken hamarkadak falta dira, eta lan hau da, epe motzean proiektatua duguna.



Momentu honetan Monzon-Ganuzza liburutegia osoagoa egin nahian, Dorrean kutxetan gordeta ziren XX mendeko izenburu ezberdineko aldizkarien bilduma atontzeari ekin diogu. Jada batzuk sailkatzen hasiak gara.

2.11. Ekarpen berriak

Olaso Dorrearen artxibategiak aurten ekarpen gisa Joseba Azkarragak utzitako hemeroteka izan da.

2.12. Telesforo Monzon euskal herrigintza laborategiaren ekimenak

Aurten TMelab-en hainbat jarduera burutu dira Olaso Dorrean, azpimarratzekoena Gipuzkoako Klima eta Landa eremuaren Herri batzarraren 3. saioa bertan burutu izana izan da. Herri batzar hau Gipuzkoako Foru Aldundia, Arantzazulab eta Telesforo Monzon laborategiaren atean aurrera eramandako ekimena da.

